

Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

IV. Plangintzaldia

(2008-2012)



AURKIBIDEA

1. Sarrera

2. III. plangintzaldiaren balorazioa

3. Erabilera normalizatzeko plana

- 3.1. Eragin-eremua
- 3.2. Eragin-epea
- 3.3. Xede nagusia
- 3.4. Helburu orokorrak
- 3.5. Oinarriak
- 3.6. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- 3.7. Metodologia
- 3.8. Parte-hartzaileak
- 3.9. Azterketa komunikatiboa
- 3.10. Berariazko hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza
- 3.11. Antolakuntza-egitura
- 3.12. Planaren kudeaketa eta jarraipena
- 3.13. Baliabideak

4. Hizkuntza Eskakizunak IV. Plangintzaldian

- 4.1. Derrigortasun-datak ezartzea
- 4.2. Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera

Eranskinak

A eranskina: Hizkuntza ofizialen erabileraren neurketa prentsaurrekoetan: helburu mailakatuak eta normalizazio neurriak

B eranskina: Administrazio-kontratuetan baldintza linguistikoak sartzea onartzea.

C eranskina: Bilboko Udaletxean Euskararen Erabilera normalizatzeko Planaren (1999-2002)

D eranskina: Hizkuntza egoera Bilboko Udalean eta bere erakunde autonomoetan

1. Sarrera

Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen du, eta hori oinarri harturik, euskararen normalkuntza eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du 10/1982 Euskararen Legeak; alegia, arautzen ditu herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Administrazio Publikoari dagokionez, Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, Administrazio langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, Administrazio lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza-erregimena, zeinaren arabera zenbait lanpostu betetzeko derrigorrezkoa izango baita bi hizkuntza ofizialak ezagutzea, eta gainerako lanpostu guztiak betetzeko, beste merezimenduen artean, hizkuntza ofizial bien ezagutza aintzat hartu behar baita. Urte batzuk geroxeago, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak garatu zituen Administrazioak hizkuntzaren alorrean dituen betebeharrak.

I. Plangintzaldiaren (1990-1995) helburu nagusia izan zen Administrazio langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialean jarduteko; honetan egin ziren ahaleginik handienak: hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak eskolaratzen, haien euskara-maila hobetzen, etab.

II. Plangintzaldian (1997-2002), ordea, aldaketa bat gertatu zen; langileak euskalduntzen eta alfabetatzen ari ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, ez eta antzekoan ere. Hori guzti hori kontuan izanik, II. plangintzaldiaren helburu nagusia langileak hizkuntza aldetik prestatzea ez ezik, euskararen erabilera areagotzea izan zen; eta hori lortze aldera, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zien euskal herri-administrazio guztiei.

86/1997 Dekretuan ezarritakoa betetzeko, 1999an onartu zen lehenengoz Bilboko Udalean Erabilera Plana (1999-2002) eta III. aldirako (2003-2007) luzatu egin zen funtsezko alderdiei dagokienez. Plan bietan, langileak euskalduntzeko neurriez gain, oinarri teorikoak jarri izan dira euskararen erabilerak gora egin dezan: administrazio atalak eta lehenetasunak definitu dira, hizkuntza normalizatzeko neurriak ezarri dira jendaurreko ekitaldietan, kontratazio administratiboan hizkuntza irizpideak arautu dira, eta abar. Hala ere, neurri horiek guztiak ez dira nahikoak izan langileek euren eginkizunak euskaraz ere bete ditzaten, eta urte hauetan ez da asmatu langileen hizkuntza-gaitasuna eguneroko lanean neurri egokian islatzen; horren ondorioz, gaztelaniaz egiten da lan nagusiki.

Hori dela eta, IV. Plangintzaldiaren helburua euskararen presentzia bermatzeaz gain, zeregin jakin batzuetan euskara ere lan egiteko hizkuntza normala bilakatzea da.

2. III. plangintzaldiaren balorazioa

III. Plangintzaldiaren balorazioa egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako galdetegi egituratua jarraitu izan da. Bertan datu kuantitatiboak bildu dira batetik eta, bestetik, azterketa kualitatiboa egin da. EAEko herri administrazio guztiek eskainitako datuekin Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak III. Plangintzaldiaren balorazio txostena egin zuen 2007ko abenduan.

Datu kuantitatiboei begiratuta, euskararen ezagutza hauxe da Bilboko Udalean: langileen %38,71k hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu du, eta %29,98k dagokiona. Gainera, III. Plangintzaldian derrigortasun-data zuten langileen %69,2k dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu du eta %7,9ak bakarrik ez du inolako mailarik egiaztatu; hala eta guztiz ere, datuek gordintasun osoz erakusten dute euskaraz lan egiteko gaitasuna duen langileria horrek gaztelaniaz jarduten duela gehien-gehienetan: gaztelania dela Administrazio sortze-hizkuntza nagusia. Ezagutza alde batera utzita, orokorrean, hizkuntza-paisaian (errotulazioan, papelerian) eta kanpo-proiektzioan (argitalpenak, iragarpenak) bermatuta dago euskararen erabilera, batez ere idatzizkoan. Hala ere, hedapen elebidun hori itzulpenak

bermatzen du ia-ia osotasunean; Hori dela eta, zelan lortu bi lan-hizkuntzen arteko benetako berdintasuna, eta ez bakarrik berdintasun formala, eta are gutxiago itxura soiliko berdintasuna?

3. Erabilera normalizatzeko plana

3.1. Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremukoak dira Bilboko Udala eta bere erakunde autonomoak. Erakunde autonomoak direla eta, Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1999-2002 aldirako Erabilera Planak —ondoren 3. plangintzaldirako luzatu dena— hainbat aurreikuspen jasotzen ditu 9. puntuan sozietate publikoetarako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetarako. Aurreikuspen horiek guztiak IV. plangintzaldian ere indarrean daude. (C eranskina)

3.2. Eragin-epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren eragin-aldia 2012ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuaren IV. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

3.3. Xede nagusia

Plangintzaldiaren xede nagusia da Bilboko Udalean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea.

Euskarak, beraz, lan egiteko hizkuntza izan behar du batez ere herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan eta herritarrekiko hartu-emanean. Izan ere, kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela. Horretarako, arian-arian euskara ere laneko zeregin batzuetarako hizkuntza bilakatu beharra dago.

3.4. Helburu orokorrak

Lau dira erabilera-plan honen helburu orokorrak:

- Euskararen ahozko erabilera areagotzea.
- Euskararen idatzizko erabilera areagotzea.
- Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzea.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

3.5. Oinarriak

Hiru hauek izango dira plangintzaldiaren oinarri nagusiak:

- Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak; bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko; eta hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen atentzioa euskaraz ematea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe. Horrez gain, komunikazio

telematikoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira administrazioaren eguneroko jardunean eta komunikazio mota berri horiek euskaraz eskaintzea bermatuko da.

- Langileen lan-jardunen izaera komunikatiboa.
Langileek apurka-apurka gai izan beharko dute lanari dagozkion zenbait zeregin euskaraz ere gauzatzeko. Hori aintzat hartuta, azterketa komunikatiboaren bidea bultzatuko da.
- Bilboko Udalaren Irudi korporatiboa.
Udalak kanpo proiektioan ematen duen irudian euskararen presentzia bermatuko da, batez ere jendaurreko ekitaldiek duten informazio oihartzuna kontuan izanda.

3.6. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Erabilera plan honen lehen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira. 86/1997 Dekretuaren 18. artikuluko c) eta d) puntuetan esaten da erabilera-planetan zehatz-mehatz azalduko dela euskara nola erabiliko eta tratatuko den zenbait esparrutan. Hori aintzat hartuta, III. plangintzaldian jendaurreko ekitaldietan eta kontratazio administrazioen esparruan Bilboko Udalean erabiliko diren hizkuntza irizpideak onartu ziren. (A eta B eranskinak)

IV. plangintzaldi honetan araudi orokorra prestatuko da Bilboko Udaleko sail eta erakunde autonomo guztientzako hizkuntza-irizpide nagusiak finkatzeko. Bertan hainbat esparru, hala nola ahozko eta idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoa, internet eta intranet sareak, eta aipatutako esparru horietan onartu ziren hizkuntza irizpideak txertatuko dira. Udalak irizpide horiek kontuan hartuko ditu eta horiek betetzera joko du arian-arian eta etengabe aurrera begira.

Hona hemen irizpideok proposatzerakoan kontuan izan eta bultzatuko direnak:

- Argi eta garbi azalduko da zein hizkuntza erabili kasu bakoitzean: ahoz eta idatziz; herritarrekin, beste administrazioekin eta Udal barruan.
- Kalitatezko komunikazio idatzia sustatuko da; hau da, testu zuzenak, egokiak eta argiak ekoiztea.
- Idazketa elebiduna eta korredakzioa aintzat hartuko dira.

3.7. Metodologia

IV. Plangintzaldi honetarako metodologia berria erabiliko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Metodologia horren abantaila nagusiak honakoak dira:

- Lehenengoz abiatzen da diagnosi kuantitatibo eta kualitatibo batetik.
- Zutabetzat ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Euskaraz “zer” eta “nola” egiten hasi behar duen esaten zaio langileari.
- Metodologia egingarria da, mugatua delako eta lortu ezinezko helbururik ez duelako ezartzen.
- Eraikitzailea ere bada, eta erraza erabiltzen; hau da, metodologia bera ez da helburua, tresna bat baizik, euskara, gaztelaniarekin batera, Administrazioeko hizkuntza izan dadin.
- Neurketa ahalbidetzen da.
- Metodologia bateratua da.

Metodologia hori Administrazio Orokorrean ez ezik gainerako herri-administrazioetan ezartzeko modukoa da; hori dela eta, Bilboko Udalak egokitzen zaiona aztertu eta bideratuko du.

3.8. Parte-hartzaileak

86/1997 Dekretuko 17. artikulua herri-administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak zehazten ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Horrela, %25etik %45era bitarteko indizea duen erakundeak (Bilboko Udalaren kasua,%28,80 indizea baitauka), honako helburuak izango ditu derrigorrez, bete beharreko indize horrek ahalbidetzen dion heinean:

1. Jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezartzea.
2. Gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan administrazio-atal elebidunak ezartzea.
3. Gizarte-izaerako administrazio-atal elebidunak ezartzea.
4. Izaera orokorreko administrazio-atalen artetik, mikroplana behar dutenak aukeratzea.

III. plangintzaldian jendaurreko eta gizarte-izaerako administrazio-atalak izan ziren lehentasunezkoak: lehen mailako lehentasuna (L1) aitortu zitzaizen jendaurreko administrazio-ataleak eta plangintzaldian zehar elebidun izateko moduan zeuden gizarte-izaerako administrazio-ataleak; bigarren mailakoa (L2) gainontzeko gizarte izaerako administrazio-ataleak, eta lehentasunik gabe (LG) geratu ziren izaera orokor eta izaera bereziko administrazio-atalak.

IV. plangintzaldian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean langile hauei egingo zaie parte hartzeko gonbita, lanpostuen jabe izan edo ez izan:

- Derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenei, edozein dela ere beren atalaren izaera.

Horietaz gain, aukera emango zaie ondoko hauei erabilera-planean sartzeko:

- Derrigortasun-data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenei.

Bestalde, zenbait lanposturen lan-jardunak estrategikotzat jotzen badira, gonbita egin ahal izango zaie derrigortasun-data izanik dagokien hizkuntza-eskakizuna baino bat baxuagoa egiaztatu dutenei.

3.9. Azterketa komunikatiboa

Ikuspuntu komunikatiboaren arabera, komunikazio guztiak ez dira berdinak eta ez dute garrantzi estrategiko bera. Esate baterako, komunikazioaren aldetik ez da gauza bera sail batek herritar guztiei bidali behar dien informazio-gutuna edo teknikari batek bere zerbitziburuari idazten dion posta elektronikoa; ez da berdina behin eta berriro errepikatzen den dokumentu bat idaztea edo behin bakarrik erabiliko den bat atontzea; ez da gauza bera telefona erabiltzea herritarri informazioa emateko edo lankide bati datu batzuk eskatzeko.

Lehentasuna duten komunikazioak euskaraz ere egiten prestatzeko eta komunikazio horiek eguneroko jardunean euskaraz ere gauzatzen laguntzeko bide izan behar du erabilera planak. Horregatik, eta euskaraz ere landuko diren komunikazio horiek zein izango diren erabakitzeko, lan-jardun nagusiak eta lan-jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak aztertu beharko dira.

Ikerketa sakonago hori egin bitartean, hona hemen, azterketa komunikatiboa garatzean, zein lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaion:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.

- Eragin handiko komunikazioak:
 - Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak).
 - Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak).
 - Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak...).
 - Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.
 - Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...).

Egin beharreko azterketa komunikatibo honek hainbat kontu ere argituko ditu:

- Lehenengo eta behin argituko du zeintzuk langile sartu behar diren lehentasunez erabilera-planetan.
- Finkatuko du zein hurrenkeratan garatuko diren erabilera-planean lehenetsitako komunikazioak.
- Azterketa komunikatiboak bide emango du, gainera, sailaren barruan derrigortasun-datak jartzeari buruzko proposamena egiteko orduan, 4.1. eta 4.2. puntuetan agertzen den prozeduraren arabera.

3.10. Berariatzko hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza

Administrazioko langile elebidun gehienek hizkuntza-prestakuntza orokorra jaso dute (alfabetatze- edo euskalduntze-ikastaroak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza-gaitasun jakin bat eskuratu dute. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; baina badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu zenetik orain arte; zenbateraino erabili den euskara tarte horretan era abar. Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langile, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko. Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariatzko hizkuntza-prestakuntza: irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealtatera jauzi egiten laguntzera. Hori dela eta, abian jarriko dira administrazio-hizkeraren gaineko ikastaroak, idatzizko komunikazioari buruzko ikastaroak, idazki-eredu ezberdinak lantzekoak edota tokian-tokian beharrezko izan daitezkeen xede edo helburu bereziei buruzkoak.

Berariatzko hizkuntza-prestakuntzarako bi bide aurreikusten dira proiektu honetan: ikastaroak eta trebakuntza-saioak. Lehenak aurrez aurrekoak (irakasleen bidez) edo online izaerakoak (tutoreen bidez) izango dira; bigarrenak, trebakuntza-saioek alegia, segida praktikoa emango diote ikastaro horietan ikasitakoari.

Azterketa komunikatiboa egin ondoren, antzemandako lehentasunezko komunikazioak kontuan izanik, jakingo da zenbat ekintza antolatu behar diren hautatutako komunikazioak euskaraz ere egiten hasteko eta komunikazio horiek gauzatzen dituzten langileak berariatzko hizkuntza-prestakuntzako ikastaroetara bideratuko dira; hori dela eta, komunikazio edo idazki horietan aritzen diren langileek bakarrik hartuko dute parte, eta komunikazio jakin horiek egiteko prestatuko dira.

Ikastaroa amaiturik, trebakuntza saioa hasiko da, hala badagokio. Trebakuntzak hasiera eta amaiera izango du: hasi egingo da langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean; eta bukatu, komunikazio hori euskaraz egiteko gauza denean. Berba batean, langilea prestatuko da komunikazio jakin bat euskaraz egiten ikasteko, horretarako bakarrik; eta gaitasun hori eskuratzen duenean, euskaraz ere hasiko da lanean, eta horrek saileko eguneroko jardunean isla izan beharko du.

3.11. Antolakuntza-egitura

Euskara Normalizatzeko Batzordea (ENBA) Erabilera Planaren jarraipenerako organoa izango da eta proiektu osoaren ardura izango du.

Urtean behin bilduko da gutxienez, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Erabilera planaren jarraipena egin.
- Sail guztiei eragiten dieten erabakiak hartu.
- Planak aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen lagundu.

3.12. Planaren kudeaketa eta jarraipena

Euskara Sailak eta Pertsonalaren Kudeaketa eta Barneko Komunikazioa Sailatalak (Giza Baliabideak, Kalitate eta Ebaluazio Saila) kudeatuko dute Erabilera Plana. Planaren aurrerapenak urtero, langileen Lanpostuen Zerrenda berrikusten den garai berean, berrikusiko badira ere, balorazio-txostenak IV. Plangintzaldiaren tartean eta amaieran egingo dira. Txostenotan erabilerari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasoko dira.

Datu kuantitatiboak:

- Erakundeko erabilera-planari, berez, dagozkion zenbait datu:
 - Planean barneratutako langile-kopurua eta mugimenduak.
 - Zenbat lan-jardun garatzen ari diren euskaraz.
 - Abian jarritako ekintza nagusiak: ikastaro-kopuruak, trebakuntza-saioak, moldatutako idazki-ereduak...
- Arduradun politikoen hizkuntza-gaitasunari buruzko informazioa.
- Langileen euskara-maila: hizkuntza-eskakizunen egiaztapenaren bilakaera.
- Hizkuntza-paisaia.
- Baliabide informatikoak.
- Hizkuntza-irizpideak.
- Kanpo-proiektzioa.
- Lan-jardun nagusietako komunikazioen hizkuntza.
- Barne- eta kanpo-harremanak.
- Kanpo-hizkuntzaren eskaera.
- Sortze-lana eta itzulpenak.
- Lana euskaraz egiteko gaitasuna.

Datu kualitatiboak:

- AMIA bat egingo da, datu kuantitatiboak baloratu, proiektuaren ahuleziak, mehatxuak, aukerak eta indarguneak aztertu eta, gainera, euskararen erabilerak aurrera egin dezan proposamenak egitea ahalbidetuko duena.

3.13. Baliabideak

Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak izango dira giza baliabideak eta baliabide materialak. Ondoko hauek dira baliabide-hornitzaileak:

- Euskara Saila eta Pertsonalaren Kudeaketa eta Barneko Komunikazioa Sailatala (Giza Baliabideak, Kalitate eta Ebaluazio Saila)

Euskara Sailaren eta Pertsonalaren kudeaketa eta barneko komunikazioa Sailatalaren ardura dira Erabilera Planaren proposamena, jarraipena eta balorazioa: diagnosia, helburu orokorrak, helburu zehatzak, adierazleak, ekintza-plana, jarraipenerako balorazio-txostenak.

- Laguntza teknikoa

Hizkuntza dinamizazio lanetarako eta langileei berariazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntza eskaini ahal izateko, laguntza tekniko berezitua aurreikusten da.

- Beste giza baliabide batzuk

Planean hizkuntza ofizialen erabilerarako finkatutako jarraibideetatik eratorritako itzulpen beharrei (euskaratik zein gaztelaniatik), eta administrazio atal elebidunetako beharrei erantzuteko giza baliabide egokiak beharko dira.

4. Hizkuntza Eskakizunak IV. Plangintzaldian

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legean (97.2 artikulua) eta 86/1997 Dekretuan (7. artikulua) jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun dagokion.

Behin hizkuntza-eskakizuna ezarri ondoren, zenbait lanposturi derrigortasun-data ezarri behar zaie, indize bat aplikatuz. Indize hori Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da, formula honi begira: $\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$. 86/97 Dekretuko 11. artikuluen arabera, plangintzaldi bakoitzerako indizea kalkulatzeko, beraz, plangintzaldia hasten denean indarrean dagoen Erroldan jasotako azken datuak erabiltzen dira, betiere herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta.

Derrigorrezko indizeak adieraziko du administrazioak hizkuntza-gaitasunari dagokionez indarrean dagoen plangintzaldian nahitaez bete behar duen helburua. Hau da, derrigortasun-data ezarri behar zaien lanpostuen ehunekoa zein den.

4.1. Derrigortasun-datak ezartzea

IV. Plangintzaldiaren hasieran Bilboko Udalari dagokion derrigortasun indizea %28,80koa da. Hori horrela, derrigortasun-datak jartzerakoan kontuan hartuko dira 86/1997 Dekretuaren IV. Atalburuko 20., 21., 22., eta 23. artikulua. Era berean 16. artikulua honela sailkatzen ditu administrazio-atalak: jendaurrekoak, gizarte-izaerakoak, izaera orokorrekoak eta izaera berezikoak; eta 17. artikulua gutxieneko helburu batzuk finkatzen ditu euskararen erabilera normalizatuz joan dadin. Hori guztia horrela, derrigortasun-datak bi alderdi hauek konbinatuz ezarriko dira: administrazio-atalaren izaera, eta kasuan kasuko administrazioari dagokion indizea.

Bilboko Udalaren indizea kontuan harturik, helburu hauek bete behar ditu Udalak: administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz bai idatziz, eta horretarako jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan, eta pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira izaera orokorreko administrazio-ataletan ere.

4.2. Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera

Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera hau izango da:

Jendaurreko atal eta dotazioak.

Atal elebidunak.

Gizarte-izaerako atalak, baldin eta plangintzaldiaren barruan atal elebidun izateko aukeratu badira.

Dena dela, IV. Plangintzaldi honetan, aurrekoetz gain, atal hauetan ere jarri ahal izango dira derrigortasun-datak: izaera orokorreko ataletan eta izaera berezikoetan, baldin eta lanpostuaren jabeak dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu badu eta erabilera-planean sartuta badago.

A eranskina:

Hizkuntza ofizialen erabileraren neurketa prentsaurrekoetan:
helburu mailakatuak eta normalizazio neurriak

Euskara Saila/Área de Euskera

Espedientea/Expediente

082520000001

Eguna/Fecha

2008-06-01

Gaia/Asunto

Hizkuntza ofizialen erabileraren neurketa prentsaurrekoetan: helburu mailakatuak eta normalizazio neurriak

Medición del uso de las lenguas oficiales en las ruedas de prensa: objetivos progresivos y medidas de normalización

2008ko apirilaren 22an izandako batzarrean, "Hizkuntza ofizialen erabileraren neurketa prentsaurrekoetan" txostena aurkeztu ondoren, Gobernu Batzordean honako akordio hau hartu zen: Berariazko politika bat bultzatzea ekitaldi publikoen alorrean, ofizialetan edota instituzionaletan, hizkuntza ofizial bien arteko oreka handiagoa lortzea ahalbidetzeko eta jardun publikoa udal korporazioak komunikabideetan duen presentziaren oinarritzat hartzeko.

Hori horrela, Gobernu Taldeak helburu hau ezarri dio bere buruari: Euskarak ekitaldi publikoetan urtez urte presentzia handiagoa izatea, oraingo agintaldia amaitzean euskararen erabilera %25era helduz. Era berean, urterik urte helburu mailakatu hauek beteko direla adostu genuen:

- 2008ko helburua: %10
- 2009ko helburua: %15
- 2010eko helburua: %20
- 2011ko helburua: %25

Adierazitako helburu hori lortzeko beharrezkoa da Udal Gobernuak konpromisoa hartzea. Hori dela eta, hauxe erabaki zen batzar horretan: Bilboko Udalaren eta bere erakunde autonomoetako kargudun eta langile elebidunek euskararen erabilera bermatzea erakundeetan duten kargu edo lanpostuagatik diharduten ekitaldi publikoetan.

Ezarritako helmuga horretara heltzeko, Euskara Sailak neurri batzuk proposatzen ditu. Neurriok dokumentu honi erantsi zaion eranskinean dituzu.

En la sesión celebrada el pasado día 22 de abril de 2008, y tras la exposición del informe "Medición del uso de las lenguas oficiales en las ruedas de prensa", en la Junta de Gobierno se acordó la necesidad de impulsar una política específica encaminada a conseguir un mayor equilibrio entre las dos lenguas oficiales en los actos públicos, oficiales e institucionales, que contemple la actividad pública como eje de la presencia corporativa en los medios de comunicación.

Para ello, el Equipo de Gobierno se ha marcado como objetivo cuantificable que en los actos públicos se aumente el uso del euskera progresivamente hasta llegara un **25%** al finalizar el mandato actual, según la siguiente progresión:

- Objetivo 2008: 10%
- Objetivo 2009: 15%
- Objetivo 2010: 20%
- Objetivo 2011: 25%

La consecución de este objetivo necesita la adopción de un compromiso por parte del Gobierno Municipal y, en consecuencia, se decidió que los cargos públicos y personal bilingüe del Ayuntamiento de Bilbao y de sus organismos autónomos garantizarán el uso del euskera en aquellos actos en que participan en función de su cargo o puesto de trabajo.

Para posibilitar el cumplimiento del objetivo de fin de mandato, el Área de Euskera propone la adopción de una serie de medidas, que se detallan en el anexo que se adjunta.

B eranskina:

Administrazio-kontratuetan baldintza linguistikoak sartzea onartzea.

Igorlea / Remitente

Kontratazio Zuzendaritza/Dirección de Contratación

Espedientea / Expediente

072520000008

Eguna / Fecha

2008-09-24

Gaia / Asunto

Erabaki egiaztagiria: Administrazio-kontratueta baldintza linguistikoak sartzea onartzea

Testimonio: Aprobar la inserción de condiciones lingüísticas en la ejecución de los contratos administrativos.

E R A B A K I E G I A Z T A G I R I A

Euskara Sailean izapidetzen ari den espedientean (signatura **072520000008**) Gobernu Batzordeak **2008ko irailaren 24an** hartutako erabakia jaso da. Hauxe dio erabaki horrek:

BAT.- Administrazio-kontratueta baldintza linguistikoak sartzea onartzea. Hauek dira:

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:

- 1. Administrazio kontratueta administrazio-baldintza berezien karatulan atal bat jarriko da** kontratuak legerian ezarritako hizkuntza-araubide juridiko ofiziala bete behar duela adierazteko, bai eta hizkuntza ofizial biak erabiltzea kontratuaren betearazpen baldintza dela eta betekizun linguistikoak ez betetzeak legean ezarritako ondorioak ekarriko dituela adierazteko ere. Hau da karatulan jarriko dena:

"Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizial bi izatearen araubidea, hala baitago ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Lege hori garatzen duten arauetan; hori dela eta, kontratua adjudikatuta daukan enpresak edota azpikontraturik izan daitezkeenak aintzat hartuko dute kontratua gauzatzean hizkuntza biak, euskara eta gaztelania, ofizialak direla eta, era berean, elebitasun irizpideak eta herritarren hizkuntza- eskubideak zainduko dituzte.

Betebehar linguistikoa kontratua gauzatzeko baldintza bat da eta, hori bete ezean, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu."

Zerbitzuak emateko kontratueta, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla eta, kontratua hizkuntza ofizial edo ez ofizial jakin batzuetan gauzatu behar bada eta baldintzen orrian hori adierazi behar izanez gero, aurreko testuari hauxe erantsiko zaio:

“Salbuespenak izango dira, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean beste hizkuntza batean, edo batzuetan, soilik gauzatzeko eskatzen badute eta kontratuaren baldintzetan horrela jasota badago.”

1.2. Administrazio-baldintza berezien orrian, baldintza linguistiko hauek sartuko dira, kontratu motaren arabera.

Hauek dira kontratu-motak:

1.2.1. Obretarako kontratuak (irekia, negoziatua edo mugatua)

“Kontratista esleipendunak edota azpikontratatik, egonez gero, hizkuntza ofizial biak erabiliko ditu obran ikusgai dauden errotulu eta seinaleetan, bai obra barruan zein kanpoko aldean.

Herritarrentzako dokumentu eta inprimaki guztiak elebidunak izango dira.”

1.2.2. Herri-lanak

“Kontratista esleipendunak edota azpikontratatik, egonez gero, hizkuntza ofizial biak erabiliko ditu obran ikusgai dauden errotulu eta seinaleetan, bai obra barruan, zein kanpoko aldean dauden informazio paneletan.

Herritarrentzako dokumentu eta inprimaki guztiak elebidunak izango dira.

Kontratua gauzatzean erabiltzaileekin harremanik badago, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean eskainiko da zerbitzua. Beren beregi inolako aukerarik egiten ez bada, komunikazio orokorrak, idatziz zein ahoz egiten direnak, elebidunak izango dira.”

1.2.3. Hornidurako kontratuak

“Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan emango ditu eskaintzen dituen produktuen errotulazioa.

Kontratu-egilearen eskariz diseinatutako softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak hizkuntza ofizial bietan egingo dira.”

1.2.4. Zerbitzuak emateko kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak

“Kontratuaren xedearen ondorioz egiten diren ikerketak, txostenak, proiektuak... hizkuntza ofizial bietan eskainiko dira, baldintza hauek betetzen dituztenean:

- herritarren artean zabaltzekoak direnean (osorik edo zati bat).
- kontratuaren xedearen jasotzaileak umeak edo gazteak direnean.

Horiek egiteko (ikerketak, txostenak, proiektuak...) herritarrekin harremanik bada, herritarrak aukeratutako hizkuntzari jarraituko zaio. Bestalde, herritarrei zuzendutako ekintza edo euskarri guztietan (inkestetan, galdetegietan, eztabaida taldeetan etab) hizkuntza ofizial bien erabilera bermatuko da. Horretarako, kontratatik edo azpikontratatik langile kopuru nahikoa izango du herritarrekin hartu-eman zuzena euskaraz ere gauzatu ahal izateko.

Euskara eta gaztelania berdintasunean erabiliko dira kontratuaren xedearekin zerikusia duten jendaurreko ekitaldietan.”

1.2.5 Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak

“Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan eta eskaintzen duten zerbitzurako behar dituzten dokumentuetan (informazio-orriak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzua eskaintzeko dokumentuak, inprimakiak...).

Jardueretan erabiltzaile edo kontsumitzaileekin harreman zuzena dagoenean, zerbitzu hori gaztelaniaz zein euskaraz eskaintzeko moduan egon beharko du enpresa esleipendunak edo azpikontratatistak, eta pertsoneri, euren eskatzen duten hizkuntzan erantzungo die.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasun egokia duen pertsona nahikoa izan beharko du kontratatistak.”

1.2.6 Kontratu mistoak

Kontratuaren xedearen araberrako baldintzak sartuko dira, bateratzeak eskatzen dituen egokitzapenak eginda.

BI.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea LEHENENGO atalean xedatutakoa eta interesdunei hau ohartaraztea: erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokizu erabakia hartu duen organoari. Horretarako hilabeteko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errekurtso hau jarri zenuen egunetik gehienez hilabeteko epean ebazpen adierazirik jaso ezean, ezetsizat joko da. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duzu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako aretoan.

Berraztertze errekurtsorik jarri nahi ez baduzu, zuzenean jar dezakezu administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako aretoan. Horretarako hilabete biko epea izango duzu, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, beste edozein aurkabide erabil dezakezu, egoki baderitzozu.

HIRU.- Erabaki honen egiaztatzea egitea, eragina izan dezan Udaleko sailetan.”

Eta jasota gera dadin eta ondorioak izan ditzan erabaki egiaztatze hau egin dut, **Bilbon, 2008ko irailaren 24an.**

KONTRATAZIOKO ZUZENDARIA

C eranskina:

Bilboko Udaletxean Euskararen Erabilera normalizatzeko Planaren (1999-2002) 9. puntua.

EUSKERAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA BILBOKO UDALETXEAN

1999ko apirila

9.- APIRILAREN 15EKO 86/1997 DEKRETUA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak sozietate publikoetan eta zuzenbide pribatuko ente publikoetan hizkuntza-normalkuntzarako neurriak hartu beharra aurreikusten du:

"Lugarren Xedapen-Gehigarria. 1.- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.- Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote borren berri, Dekretu honen 7. atalean ezarritakoari jarraituz".

9.1.- Helburu mailakatuak eta normalizazio-ekintzak

1. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren nortasun-korporatiboan euskararen erabilera bermatzea.

Ekintza: euskara nortasun korporatiboaren zeinuetan erabiltzen ez denetan erabiltzea.

2.- Helburua: publiko orokorraren edo erabiltzaileari zuzendutako ezein dibulgazio jarduketetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

Ekintza: manualetan, gidetan, produktuen erabilerarako instrukzioetan, prestakuntza-ekintzetan eta dibulgazioko bestelako jarduketetan euskara erabiltzea.

3. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren bezero edo erabiltzailearekiko idatzizko harremanetan erabilitako agiri normalizatueta hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea.

Ekintza: kontratu agirietan, fakturretan, mekanizatutako eskutizetan eta harremanetan sortzen diren bestelako agirietan euskara erabiltzea.

4. - Helburua: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren bezero edo erabiltzailearekiko ahozko harremanetan bezeroak edo erabiltzaileak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatzea.

Ekintza: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren arlo

funtzionalen azterketa egitea, finkatutako helburuak eragindako arlo funtzionalak eta plantilako lanpostuak zeintzuk diren zehazteko; eragindako lanpostuak betetzeko euskara-maila egokia zein den zehaztea.

5.- Helburua: Sozietate edo Ente Publikoetako lan-harremanetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

Ekintza: lan-kontratu, nomina eta bestelako agirietan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea; langileei zuzenduta dauden eta lantokietan egon behar duten errotulu eta idatzizko testua duten informazio finkoek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute; langileei zuzendutako megafonia bidezko mezuak ere bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira.

6.- Helburua: langileek hizkuntza-gaitasun egokia hizkuntza ofizial bietan izatea.

Ekintza: hitzarmen kolektiboetan langileen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen eraentza aurreikusiko da egokiak diren pizgarriak ezarriz.

7.- Helburua: euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza ere izatea.

Ekintza: sozietate publikoaren edo zuzenbide pribatuko ente publikoaren arlo funtzionalean azterketa egitea, helburu han betetzeko gai diren edo izan daitezkeen arlo funtzionalak eta plantilako lanpostuak zehazteko, eragindako jardunak zehazteko, helburua erdiesteko beharrianak identifikatzeko, e.a.

9.2.- Sozietate Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

Urtebeteko epean sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko ente publikoek bakoitzak bere Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana landuko dute, arestian zerrendatutako helburuen eta neurrien artean dagozkienak finkatuz.

Plan horiek egiteko, berriz, Bilboko Udaleko Euskera Sekzioaren aholkularitza izango dute.

9.3.- Erantzuleak

Sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako administrazio kontseilu eta pertsonal arloaren ardura duten organoak.

- Bilboko Udaleko dagokion saila.

Deranskina:
Hizkuntza egoera Bilboko Udalean eta bere erakunde
autonomoetan

Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data duten lanpostuak

	2002 urtea		2007 urtea	
Egiatzatuta	400	%62,5	511	%72,59
Maila egiaztatu gabe	56	%8,75	44	%6,25
1 gutxiago	50	%7,8	49	%6,96
Salbuetsiak	56	%8,75	22	%3,13
Lanpostu hutsak	78	%12,2	79	%11,22
GUZTIRA	640		704	

IV. plangintzaldiko derrigortasun-indizea

86/1997 Dekretuaren arabera indarrean dagoen plangintzaldi honetan erabili behar den errolda 2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua da. Zentsu horren arabera euskaldunen, ia euskaldunen eta erdaldunen banaketa honako hau da:

Biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
342.382	53.051	15,49	91.204	26,63	198.127	57,87

Datu horiek kontuan hartuta eta Dekretuan zehazten den formula erabilita IV. Plangintzaldian bete beharreko derrigortasun-indizea honako hau da:

$$\%15,49 + (\%26,63/2) = \%28,80$$

Indize hori eta Bilboko Udaleko lanpostu-kopurua (2.588) kontuan hartuta plangintzaldi honetan 745 lanpostuk ezarrita izan beharko dute derrigortasun-data.

Bilboko Udaleko administrazio-atalak lehentasunaren arabera

Lehentasuna	Atalen kopurua
L1: Euren jardueraren izaeragatik eta langileen euskera-mailagatik lehen mailako lehentasuna duten atalak.	14
L2: Bigarren mailako lehentasuna duten atalak. Jardueraren izaeragatik lehentasunezko unitateak dira, ez ordea, langileen euskera-mailagatik.	6
LG: Lehentasun gabeak.	10

Bilboko Udaleko atalak izaeraren arabera

Izaera	Atalen kopurua
Jendurrekoak (lanpostuak)	352
Gizarte izaerakoak	20
Izaera Orokorrekoak	8
Izaera Berezikoak	2